



NEW YORK, KEAN UNIVERSITY, EGOITZA-PROGRAMA

Data: uztailaren 9tik 31ra

Iraupena: 3 aste **Adinak:** 14

- 18 urte **Ostatatzea:**

Egoitzan **Irteera:** Bilbotik.


Kontsultatu beste toki batzuetatik dauden irteerak.



HIRIA

New York, AEBetako hiririk kosmopolitena, eta nolabait esan, amerikar bizimoduaren ikurra. New Yorkek harritu egiten zaitu, baita harrapatu ere. Bere arkitektura abangoardistaz ohartu behar da, finantza-mentalitateaz, artistikoaz, iraultzaileaz... New York horren guztiaren hiriburua baita... eta askoz gehiago ere bai.

New Jersey izaten da ikastaroa eta New York eta Filadelfiako eremu metropoliar zabalaren barruan dago.



ESKOLA

Kean University, 1855an sortua, New Jersey dago, Manhattan

mendebaldean, 12 miliatara. Inguru horretako irakaskuntza-erakunderik handienetakoa da.

Campusak 60 hektarea inguru ditu, zuhaitzak, erreka eta berdegune

handiak. Horiez gain, ongi egokitutako gelak ditu, ordenagailu-aretoak, kafetegia, 6 kaleko igerilekua, saskibaloirako pistak,

volleybalerakoak... Ostatatzeko tokiaren ondoan futbol-zelaiak, basebalerakoak eta teniserako lau kanpo daude.



IKASTAROAK, JARDUERAK ETA IBILALDIAK

.- Astean 15 ordu izaten dira, gehienez ere 15 ikasleko geletan, asteleheneetik ostiralera 09:00etatik 12:00etara.

.- Astean bi arratsalde eta gauz ere bai, jarduerak campusean bertan edo inguruan egiten dira, hala nola, futbola, saskibaloia, igeriketa, tenisa, antzerkia, dantza, eskulanak, jolasak...

.- Astearte, ostiral, larunbat eta igandetan New Yorkera ibilaldiak egiten dira, egun erdikoak eta osokoak, eta hiriko tokirik ederrak ikusten dira: Askatasunaren estatua,

Top of the Rock, Ellis uhartea, Times Square, Central Park...



OSTATATZEA

Egoitza campusean bertan dago, apartamentu motako gelak dira, bainugela bat partekatzen duten bi logela bikoitz.

Mantenu osoan, self-service motako jatorduak izaten dira.

Welcome to New York city!

